

HAURRENTZAKO IKASTAROEN ARAUDIA 2019-2020

IZENA EMATEKO EPEA

Aurreko denboraldiko ikasleentzat plazak berritzeko epea:

- Ekainaren 3tik ekainaren 16ra arte (barne)

Abonatuak: ikastaroetan alta berriak

- Ekainaren 24tik aurrera (8:00etatik aurrera)

Abonatu ez direnak: ikastaroetan alta berriak

- Uztailaren 1etik aurrera (8:00etatik aurrera)

Igeriketa ikastaroetako alta berri bat ematen duten guztiak derrigorrez maila keta-froga bat egin beharko dute, 2016an, 2017an eta 2018an jaiotako haurrek izan ezik. (HAURTZOEN IGERIKETA).

2019-2020 DENBORALDIKO EGUTEGIA

Ikastaroa hiru epealditan dago banatua.

- Lehenengo epealdia: 2019ko irailaren 30etik abenduaren 20ra.

- Bigarren epealdia: 2020ko urtarrilaren 7tik martxoaren 21era.

- Hirugarren epealdia: 2020ko martxoaren 23tik ekainaren 14ra.

Jai egun ofizialak ez dira eskola egunak izango, ezta Gabonetako eta Aste Santuko oporraldiak ere (abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra eta apirilaren 6tik 19ra).

ORDAINKETAK

- Ikastaroen ordainketak bankutik helbideratuta eta hiru hiletik behin kobratuko dira.
- Jardueraren Lehenengo epealdiaren ordainketa uztailean izango da.
- Alta berriak izena emateko momentuan esku diruz edo txartelaz ordaindu beharko dira. Hurrengo kuotak bankutik helbideratuta kobratuko dira.
- Nahiz eta epealdi bakoitzak saio kopuru desberdina eduki ikastaroaren epealdi bakoitzeko kuotaren emaitza finkoa da.

PLAZAK BERRITZEA

- Ikastarogileek 2019-2020 denboraldi osoan zehar mantenduko dute ikastaroan duten plaza.
- Plaza berritzea automatikoki egingo da epealdi bakoitzaren bukaeran, espreski baja eman nahi dela adierazten ez den kasuetan.
- Arrazoi teknikoak direla eta, igeriketa taldeen mailak hiru hiletik behin berraztertuko dira. Horren ondoren, haurrek egin duten progresioaren arabera beste talde batean kokatzeko aukera izango da, hau da, baliteke hasierako ordutegietan aldaketak egitea.
- 2019-2020 denboraldia bukatzen duten ikasleek, izena emanda duten taldeetan, hurrengo denboraldirako plaza berritzeko aukera izango dute. Behin berritzeak eginda eta, taldeen osaeraren arabera, jatorrizko ordutegiak aldatu ahal izango dira.
- Plaza berritzeko eskubidea mantentzeko derrigorrezkoa da ikastaroa bukatzea.

BAJAK IKASTAROETAN

- Behin hasierako izen-ematea gauzaturata, 2019ko irailaren 15 arte baja eman ahal izango da. Data horretatik aurrera ez da onartuko baja ematerik.
- Denboraldian zehar ikastaroan baja eman nahi izanez gero, jarduera egiten den instalazioko harreraren jakinarazi beharko da indarrean dagoen epealdia amaitu aurreko hilaren 20a baino lehen. Horretarako, bidezko inprimakia bete eta harreraren aurkeztu beharko du. Egun horretatik aurrera ez dira hartuko.
- Jarduera egiteko ezintasuna duela adierazten duen agiri medikua aurkezten duenari, ordaindutako kopuruari dagokion zati proportzionala itzuliko zaio.
- Ikastaroetako kuotak ez ordaintzearen ondorioa beste ikastaroetan izena emateko eskubidea eta plaza galtzea izango da.

IKASTAROAK BERTAN BEHERA UZTEA ETA ANTOLAKETA ALDAKETAK

- Errenteriako Udalak jarduera bertan behera utzi ahal izango ditu ikastaroa egiteko gutxieneko pertsona kopuru batek izena ematen ez badu.
- Errenteriako Udalak, antolaketa arrazoiak direla eta, ikastaroen ordutegia eta egunak aldatu ahal izango ditu, baita ikastaroak ematen dituzten langileak aldatu ere.

ALDAGELEN ERABILERA

- Derrigorrezkoa da ikastarogileentzat erreserbatutako aldagelak soilik erabiltzea.
- Ikastarogile bakoitzarekin heldu bakar bat sartu ahal izango da aldagelara.
- Derrigorrezkoa da instalazioetako langileen jarraibideak kontuan hartzea.
- Derrigorrezkoa da dutxa guneeetan sartzeko oinetako egokiak erabiltzea (txankletak edo antzekoak).

BESTE KONTSIDERAZIO BATZUK

Gurasoek eta tutoreek seme-alabak komunera laguntzeko ardura izango dute. Pertsona horiek lokalizatzeko aukerarik ez balego, instalazioko langileek lagunduko dute haurra komunera, behar izanez gero.

DATU BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Interesatuak baimentzen du datu bilketa merkataritza harremana mantentzeko, kirol zerbitzuetarako, fisioterapia zerbitzua barne kontratatu baldin badu, eta perfilen analisia eta osaketarako. Informazio komertziala bidaltzeko, baldin eta baimendu badu. Zentroan antolatu diren jardueren berri emateko, sare sozialen bidez. Ez da aurreikusten datu tratamendurik perfilen erabaki automatizatuaren oinarrituta. Tratamendu honen legezotasuna kontratuaren exekuzioan eta interesatuaren onarpenean oinarritzen da. Datuak zerbitzua emateko beharrezko diren administrazio publiko eskudunei transferitu dakizkieke, zerbitzu publikoaren izenduna barne. Datuak sare sozialetan argitaratzeko baimena emanaz gero Europako Batasunetik kanporako bidalketak "Privacy Shield" en sartutako sare sozialen bidez egingo dira. Interesatuak eskubidea du datuak ikusteko, aldatzeko eta ezabatzeko, eta beste eskubide batzuk ere baditu informazio gehigarria esaten denaren arabera. Datu Babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza gure weborrian eta Errenteriako Udaleko Idazkariaren aurrean aztertu dezake.